



Eusko Jaurlaritzak jarduera kliniko pribatua etetea erabaki ostean

## **Haginlarien Euskal Kontseiluak larrialdietarako arreta-zerbitzua ezarri duela gogorarazi die biztanleei**

- EAEko hiru lurraldeetako dentisten elkargo profesionalek hortz-kliniken sarea prestatu dute dagoeneko, soilik larrialdi-egoerei erantzuteko. Pazienteei gomendatzen diete, lehenik eta behin, ohiko dentistari kontsulta egitea, eta, ezin izanez gero, beren probintziako Dentisten Elkargoarekin harremanetan jartzea
- Jarduera kliniko pribatuaren etendurak gaixotasunaren hedapena geldiarazten laguntzen du, baita osasun-sistema publikoaren kolapsoa saihesten ere

Dentisten Euskal Kontseiluak larrialdietarako arreta-zerbitzu kolektiboa jarri zuen abian, martxoaren 14an lehen alarma-egoera deklaratu ondoren. Erabaki hura hartu eta aste batzuetara, larrialdi-kasuei edo tratamendu atzeraezinei erantzuteko zerbitzua eskuragai dutela gogorarazi nahi die euskal herritarrei.

Eusko Jaurlaritzak jarduera kliniko pribatua espresuki bertan behera uzteko erabakia hartu ondoren eta Osasun Ministerioaren martxoaren 15eko SND/232/2020 aginduarekin bat etorritz, hortz klinikek jarduera eten egin zuten abisu berria jaso arte, urgentzia kasuak salbu. Eta orduetik hona, gure kolektiboaren ahaleginak Covid-19 koronabirusari aurre egiten laguntzera bideratu dira. Horrela, hainbat gomendio ezagutarazi nahi ditu kontseiluak, ospitaleko larrialdi-zerbitzuak saturatu ez daitezen laguntzeko, besteak beste.

Ezer baino lehen, pazienteak beren ohiko dentistarekin jarri behar dira harremanetan, bera baita lehen arreta telefonikoa hobekien egin diezaiokeen profesionala. Haginlari horrek ezin badie artatu edozein arrazoiengatik (pertsonalak, gaixotasunagatik, norbera babesteko ekipamendurik ez izateagatik...) larrialdi-kasuetarako irekitako kliniketako batekin harremanetan jartzea gomendatzen zaie. Zerrenda elkargo bakoitzaren webgunean kontsulta daiteke:

- Araba: [www.colegiodontistasalava.com](http://www.colegiodontistasalava.com), telefonoa: 945262855
- Bizkaia: [www.coeb.com](http://www.coeb.com), telefonoa: 944242980
- Gipuzkoa: [www.coeg.eu](http://www.coeg.eu), telefonoa: 943297690

Norberaren eta gizartearen osasuna arduraz zaintzeko, soilik behar-beharrezkoa bada atera behar dugu etxetik. Gizarte osoaren laguntzarekin lortuko dugu pandemia garaitzea.